



Txanpontoetarako dena prest: «Ez da ezer gehiago kabitzen programan»

Bidebietako jaiak hasiko dira datorren astean. Asteazkenetik igandera, auzoaz gozatzeko aukera izango dute adin guztietako bizilagunek. Jai batzordeko Izaskun Cruz dabil azken kontuekin: «Topera, eta pozik».

✎ Xalba Ramirez Cruz

📷 Bidebietako jai batzordea

Txanpontoekin batera abiatzen da Donostiako auzoetako jaien egutegia. Antiguakoak eta lbaetakoak negua berotzen duten arren, Bidebietakoek udaberria azkar doala eta laster uda dela gogora ekartzen digute.

Buru-belarri dabil Izaskun Cruz jaien antolakuntzan. «Bost lagun gara jai batzordean, eta horrek lan

handia suposatzen du», azaldu digu. Baina noski, ez dira haiek jaiak antolatzen dituzten bakarrak: «Jende nahikotxo hurbildu da guregana, eta, beraz, aurtan, badira nobedadeak».

Adibidez, Bidebietako Herri Krosa itzuliko da aurtan, hainbat boluntario antolatzerantz animatu direlako. «Lehen, jaietan tradizioa zen kros hau, baina guk ezin genuen antolatu.

Aurtan, taldetxo bat animatu da, eta arrakasta izaten ari da. Pila bat poztu nau jendeak berriro ere antolatzea», dio Cruzek. Ez alferrik. Hamar bat urtean egin ez den arren, 28. lasterketa izango baita honakoa.

Berritasun gehiago izango dira ere, futbito txapelketa, esaterako. «Gaztetxo batzuk proposamena egin ziguten, eta haiek ari dira antolatzen. Bikain!». Haurrentzako danborrada lehenengo aldiz aterako da aurtan, larunbat eguerdian, bazkariaren aurretik. Helduak, berriaz, bazkariaren ostean aterako dira.

Txanponto, pertsonaia maitatua

Bidebietako jaiak badute zerbait berezia, Cruzen ustez: «Jende askok parte hartzen du, eta egitaraua ikusi besterik ez dago: ez da gauza gehiago kabitzen: jubilatuen miss eta misterra, rock gaua, DJak, bazkariak, haurrentzako jolasak... Adin guztietarako egitarau zabala dago!».

Txanponto pertsonaia da kanpotik arreta deitzen duen gauzetako bat. Bidebietako baserri historiko bati egiten dio erreferentzia: Moneda

baserriari, alegia. Itxuraz, salerosketak egiteko erabiltzen zen baserri hura, eta hortik izena. Euskarara ekarri, eta Txanpontxo —bereziki— haurren artean «oso maitatua den» pertsonaia bihurtu dela azaldu digu. «Zergatik? Txanpontxoren jaitsieran, txokolatzeko txanponak eta goxokiak banatzen dituelako haurren artean».

Horregatik, akaso, helduei ere gus-tatzen zaie pertsonaiaren rola jokatzea: «Auzokideen artean galdetzen dugu ea nor dagoen prest. Oraingoan hiru lagunen artean erabaki behar izan dugu». Aurten, gainera, egiteko berezi bat izango du: lehen aldiz, jaien itxieran ere agertuko da Txanpontxo. Ea jaien hasieran bezain fresko topatzen dugun!

Aurtengo berritasunen artean Bidebietako krosaren itzulera, futbito txapelketa, haurren danborrada eta Txanpontxoren agurra daude

Laguntzaileei eskerrak

Laguntzaile, boluntario, taberna eta elkartei eskerrak eman nahi izan dizkie Cruzek. «Izugarri laguntzen digute, bai egitaraua osatzen, eta baita bestelakoekin ere. Herri bazkariak, esaterako, auzoko elkarteetan kozinatzen ditugu, bestela ezinezkoa zatekeen».

Honela, aurten egun bat gehiagoz gozatzeko aukera izango dute Bidebietan, asteazkenean, Porrotx eta Marimototsen bisita edukiko baitute haurrek: «Jendeari animatzeko deia egiten diogu, eta txosnan tragoren bat hartzeko... hurrengo urterako dirua lortu behar dugula eta!». ●



LARUNBATA 3

17:00 • Auzoko tabernetatik

Festa aurreko poteoa, musikaz girotua.

ASTELEHENA 5

18:00 • Mendiola ikastetxeko patioan

Haur danborradako azken entsegua.

ASTEARTEA 6

19:00 • 5. blokeko futbol zelaian

Futbito txapelketako finalaurrekoak.

19:30 • Bidebieta elkartean

Danborrada herrikoia azken entsegua.

ASTEAZKENA 7

18:00 • 5. blokeko futbol zelaian

Porrots eta Marimotots: *Amazonia Gara*.

19:30 • Toki Alai tabernan

Bingoa.

OSTEGUNA 8

17:30 • Guardaplata bidetik

Txanpontxoren jaitsiera erraldi eta buruhandiekin Jaixkipe txarangaren konpainian.

18:30 • Bidebieta parkean

Haurtxoko eskulanak. 'Pelota harrapakariak' eta aurpegi margoketa.

19:00 • 5. blokeko futbol zelaian

Futbito txapelketako finala.

19:00 • 10. bloketik

Txanpontxoren pregoi irakurketa eta kuadrillen jaitsiera Joselontxos txarangarekin.

22:00 • Peña Taurina

Saltseroentzako afaria. 13€. Txanpontxo 2025 kamiseta ekartzen badezu, dohain!

OSTIRALA 9

17:00 • Guardaplata bidetik

Erraldi eta buruhandiak Ilargi txarangarekin.

17:30 • Allende Parkean

Haur eta gazte eguna:

- Txikien txokoa (5 urtetik behera): marrazki txokoa.
- Haurrentzat (5-11 urte bitarte): piraten puzgarria. Jolasak: Ahateak arrantzatu, bonba, zapitxoa, paraxuta.
- Gazteentzat (12-17 urte bitarte): futbol billarra puzgarria (gaztelekua kalean). Jolasak: Mahai-tenisa, diabolak, karta jolasak...

18:00 • Jubilatuen etxean

Batxata dantza erakustaldia.

18:30 • Jubilatuen etxean

Jubilatuen miss eta misterra.

19:00 • Allende parkean

Haur eta gazteentzat txokolate jana.

19:30 • Alai tabernan

Helduentzako billar txapelketa.

20:00 • 5. blokean

Afari herrikoia: paella.



20:00 • 5. blokean

Bideberri institutuko musika eskolako ikasleen emanaldia.

22:00 • 5. blokean, futbol zelaian

XV. Txanpontxo Rock: Dosis Gray, Deklibe, Manifa eta Kangrena.

LARUNBATA 10

Aurtengo gaia: hippie

10:00 • Bidebieta parkean

Saskibaloia guztiontzat. Txikientzat jolas eta jarduerak, helduentzat gaitasun zirkuitoa. Askatuak saskibaloia taldearen eskutik.

11:00 • Bidebieta parkean

Apar festa.

11:30 • Peña Taurinaren kanpoaldean

Patata tortilla lehiaketa.

12:00 • Uliazpi elkarte aurrean

Bidebietako gaiteroen kontzertua.

12:30 • Peña Taurinan

Pintxo-pote.

12:30 • Auzoan zehar

Haur danborrada erraldoiekin.

13:00 • Jubilatuen etxean

Laurogei urte betetzen dituztenei banda ematea, udalaren eskutik.

14:00 • Jubilatuen etxean

Laurogei urte betetzen dituztenen bazkaria.

14:00 • 5. blokean

Bazkari herrikoa. Oilaskoa.

15:00 • 5. blokean

Bingo musikala, La Asuncion ikastetxearen eskutik.

17:00 • Peña Taurinan

Mus txapelketa azkarra.

17:30 • 6. bloketik

Danborrada herrikoa Jaixkipe txarangarekin.

18:00 • Frontoian

Kay Robot ikuskizuna, haurtxokoaren eskutik.

18:00 • Gaztelekuan

Txanpontxoren ospakizuna (giltzatakoea) eta merienda berezia, gaztelekuaren eskutik.

19:00 • San Francisco Javier elizan

Meza.

19:30 • Frontoian

Haurrentzat disko festa eta mozerro festa. DJ-aren atsedenaldiran mozerro hoberenari saria.

20:00

Mozorro festaren hasiera.

20:15 • Auzoan zehar

Ez da edozein danborrada, inauteri danborrada bat da.

21:30 • 5. blokean

Zezensuzkoa.

22:20 • 5. blokean

Dantza erakustaldia.

22:30 • G5. blokean

Mitx eta Iker Rodriguez DJ-ak.

23:30 • 5. blokean

Mozorro lehiaketa.

IGANDEA 11

Goizean zehar merkatua, bertako produktuekin

09:00 • Auzoan zehar

Diana, udal txistulariekin.

10:00 • Allende parkean

Puzgarriak eta aurpegi margoketa.

10:00 • Toki Alai tabernatik

Bidebietako XVIII. lasterketa.

10:00 • Jubilatuen etxean

Petankako lehen txapelketa.

11:00 • Toki Alai tabernatik

Haur lasterketa (3-16 urte bitarte).

11:00 • 5. blokean

Herri Ametsa ikastola, euskal dantzak.

11:00-15:00

Sagardo eguna.

12:00 • Allende parkean

Apar festa.

12:00 • Erreka tabernan

Toka eta bote txapelketa mistoa.

12:00 • Jubilatuen etxean

Jubilatuentzat luntxa.

18:00 • 5. blokean

Herri kirolak:

- Aizkolariak: Uxue Ansozregi (Mendaro) eta Irati Astondoa (Zeanuri).

- Alturako mozketa: Julen Kañameres (Arostegi).

- Harri jasotzailea: Lierni Osa (Zarautz).

19:00 • 5. blokean

Sardina jate herrikoa.

Txanpontxori agurra.

19:30 • 5. blokean

Jo Ta Txo DJ-a.

22:00 • 5. blokean

Bidebieta argituko dugu Txanpontxo agurtzeko.

ASTELEHENA 12

Haurraren eguna

Egun osoan zehar atrakzio guztiak 1,5€.